

28.<

UDABERRIKO  
MUSIKALDIA

Azkoitia - 2019





## AZKOITIA

### SANTA KUTZ KOMENTUAN

18:30ean

Maiatzak 4, Larunbata

**Duo Zugaz**

Elena Cadierno, pianoa

Mercedes Mediana, pianoa

Maiatzak 11, Larunbata

**SUHAR, Gizon-korua**

Zuzendaria: Esteban Urcelay

Maiatzak 18, Larunbata

Haizea Muñoz, Sopranoa

Paula Iragorri, Mezzosopranoa

Borja Rubiños, Pianoa

Maiatzak 25, Larunbata

**Kamerata Oiasso**

## Santa Kutz Komentuan

maiatzak 6 - 18:30ean

### EGITARAUA – PROGRAMA

#### I

A. Donostia ..... Piezas infantiles, selección (1937 - 1947)  
(1886 - 1956)

1. Mutil dantza
2. Kukuarena
3. Petite André berce l'Enfant Jésus
4. Pastorale
5. Danza vasca

M. Ravel ..... Ma mère l'oye, 5 Pièces enfantines (1910)  
(1875 - 1937)

1. Pavane de la Belle au bois dormant
2. Petit Poucet
3. Laideronette, Impératrice des Pagodes
4. Les entretiens de la Belle et la Bête
5. Le jardin féérique

## II

- A. Tansman ..... En tournant la T.S.F. (1939)  
(1897-1986)
1. Radio France
  2. Radio Anglatere
  3. Radio Pologne
  4. Radio États Unis
  5. Radio Russie
  6. Radio Hongrie
  7. Radio Espagne
  8. Radio Italia
- G. Gershwin ..... I got rhythm - Impromptu Variations (1933)  
(1898 - 1937)
- G. Ligeti ..... Sonatina Piano 4 manos (1950)  
(1923 - 2006)
1. Allegro
  2. Andante
  3. Vivace
- F. Poulenc ..... Sonata Piano 4 manos (1918)  
(1899 - 1963)
1. Prelude
  2. Rustique
  3. Final

**Mercedes Mediana, Piana**  
**Elena Cadierno, Piana**

## MERCEDES MEDINA

Bere aitak, J. A. Medina Labradak, gidatuta egin zituen, batez ere, musika eta piano ikasketak. Pianoko Karrera Amaierako Lehen Saria eta Musika Ganberako Karrera Amaierako Lehen Saria lortu zituen Donostiako Kontserbatorioan. Goi mailako gradua egin zuen Sevillako Goi Mailako Kontserbatorioan Ramón Coll ikaslearen eskutik, eta, ondoren, ikasketak hobetu zituen Frédéric Gevers ikaslearekin.

1982an, katedra laguntzailearen plaza lortu zuen, oposizio bidez, Donostiako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan.

Interprete gisa musika ganberako hainbat talderekin jo du sarritan: Dúo Nébel, klarinete eta piano; Trío Nébel, klarinete, biolontxelo eta piano; txelo eta pianoko bikote klasikoa; biolin eta pianoko bikote klasikoa; Euskadiko Orkestra Sinfonikoko sestetoa; biola, klarinete eta pianoko hirukotea; biola eta pianoko bikotea. Saioa López-Sánchez sopranoarekin egiten du lan, Dúo Samer izenarekin. 2016an, Dúo Sarasate sortu zuen.

2016tik Duo Sarasate osatzen du, Jonathan Mesonero biolinistarekin batera.

CD bat grabatuko dute elkarrekin 2019an, eta AECIDen lankidetzak kultureko 2019rako programetan parte hartzeko hautatuak izan dira.

Mercedes Medinak, gainera, pianorako musika azaldu eta hedatzeko modu berriak bilatzen dituen proiektu batean lan egiten du, Ortzai & Zugaz Pianora taldearen barruan.

Debe su formación musical y pianística sobre todo a su padre, J. A. Medina Labrada. Obtuvo el Primer Premio Fin de Carrera de Piano y el Primer Premio Fin de Carrera de Música de Cámara en el Conservatorio de San Sebastián. Realizó el Grado Superior con Ramón Coll en el Conservatorio Superior de Sevilla y posteriormente perfeccionó sus estudios con Frédéric Gevers en Bélgica.

En 1982 ganó la plaza de auxiliaría de cátedra por Oposición en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián.

Como intérprete ha sido integrante de numerosas formaciones de cámara: Dúo Nébel de clarinete y piano, Trío Nébel de clarinete y violoncello y piano, Dúo Clásico de cello y piano, Dúo clásico de violín y piano, sexteto de la OSE, Trío de viola, clarinete y piano, dúo de viola y piano, con los que desplegó una intensa actividad concertística.

Trabaja en colaboración con la soprano Saioa López-Sánchez, como Dúo Samer.

Desde 2016 forma el Dúo Sarasate junto al violinista Jonathan Mesonero, con el que va grabar un CD en 2019 y ha sido seleccionado para participar en los programas de colaboración cultural de la AECID para 2019.

Además, trabaja en un proyecto que busca nuevas formas de exponer y difundir la música para piano dentro del grupo musical teatral Ortzai & Zugaz Pianora

## ELENA CADIerno

Azkoitia hasi zituen bere musika ikasketak, Pilar Elorza irakaslearekin, Bizkargi Musika Eskolan; ondoren, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan jarraitu zuen, Mercedes Medina eta Cristina Navajas piano irakasleekin.

Hainbat beka eta laguntza jaso ditu, eta horien artean azpimarratzekoak dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka eta Lartundo Fundazioaren beka, horiei esker amaitu baitzituen graduondoko ikasketak Rotterdameko Kontserbatorioan, Aquiles Delle Vigne pianistarekin.

Rotterdam Philharmonische Orchestra-ko musikariez osatutako Doelen Ensemble taldearekin jardun da, eta bakarkako errezitaldiak nahiz ganbera musikako kontzertuak eman ditu Holandako eta Espainiako auditorioetan.

Pianista lanetan aritu da Arrasate Musika Eskola eta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoan. Bestalde, pianoko eta erreperatorioko irakasle izan da hainbat kontserbatoriotan (Albacete, Ciudad Real). Nabarmenezkoa da Albaceteko Auditorioan Musikako eta Dantzako Errege Kontserbatorioko Bandarekin eskaini zuen kontzertua, non «Concierto nº 2 para piano y orquesta» (D. Shostakovich) interpretatu baitzuen.

Gaur egun hainbat proiektutan parte hartzen du, talde eta musikari askorekin. Piano irakasle lanpostua eskuratu zuen, oposizioz, eta Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan irakasten du.

Inicia sus estudios musicales en Azkoitia con la profesora Pilar Elorza en la Bizkargi Musika Eskola, continúa en el Conservatorio Superior de San Sebastián con las profesoras de piano Mercedes Medina y Cristina Navajas.

Ha recibido diversas becas y ayudas entre las que destacan la beca de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la beca de la Fundación Lartundo, gracias a las cuales finaliza sus estudios de posgrado en el Conservatorio de Rotterdam con el pianista Aquiles Delle Vigne.

Ha colaborado con el Doelen Ensemble (integrado por músicos de la Rotterdam Philharmonische Orchestra) y ofrecido recitales como solista y de música de cámara en auditorios en Holanda y España.

Ha sido pianista en la clase de canto de Arrasate Musika Eskola y en la Asociación Lirica Izaskun Murgia. Asimismo, ha sido profesora de piano y repertorio en diferentes Conservatorios (Albacete, Ciudad Real). Cabe destacar el concierto ofrecido con la Banda del Real Conservatorio de Música y Danza en el Auditorio de Albacete en el que interpretó el Concierto nº 2 para piano y orquesta de D. Shostakovich.

Actualmente mantiene proyectos con diferentes agrupaciones y músicos. Es profesora de piano por oposición y desempeña su labor docente en el Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga de Bilbao.

## Santa Kutz Komentuan

maiatzak 11 - 18:30ean

### EGITARAUA – PROGRAMA

#### SOIRÉE

F. Mendelssohn ..... 2 Geistliche Chöre, op. 115  
(1809-1847)

Beati mortui  
Periti autem

Vespergesang op.121

Adspice domine de sede

Asperi oculos tuos

Qui regis Israel

Asperi oculos tuos

Lux beata



F. Schubert ..... Vier gesänge, D. 983  
 (1797-1828) Jünglingswonne («Solang im deutschen»)  
 Liebe («Liebe rauscht der Silberbach»)  
 Zum Rundetanz («Auf! es dunkelt»)  
 Die Nacht («Die schön bist du»)

La pastorella al prato, D. 513  
 Der Gondelfahrer, . 809  
 Ständchen, D. 920

A. Bruckner ..... Um mitternacht, WAB 89  
 (1824-1896) Mitternacht, WAB 80

**SUHAR gizon-korua**  
**Amaia Zipitria, Pianoa**  
**Juan Ignacio Emme, Biolontxelo**  
**Maitte Arruabarrena, Mezzosopranoa**  
**Esteban Urzelai, Zuzendaria**

## SUHAR

Abesbatzen munduan esperientzia haundia duten 26 abeslariz osaturiko gizonen korua da Suhar. 2018ko udazkenean sortu zen, gizonen abesbatzentzako erreperatorioa maila gorenean lantzeko asmoarekin. Esteban Urzelai Eizagirre da taldearen sortzaile eta zuzendaria, eta koruen munduan duen esperientzia luze bezain oparoa proiektu honen bitartez erakustera ematea dauka helburuen artean, Amaia Zipitria piano jolea lagun duelarik.

Gizonen abesbatzek berebiziko garrantzia izan dute gure kultur ondarean. Hasierako "orfeoiak", elizetako koruak, otxoteak eta antzeko taldeak Euskal Herriko kulturaren protagonista izan dira betidanik.

Suhar, gure abesbatzen iraganetik abiatu eta gizonen koruek beren lekua izango duten etorkizunera eramango gaituen katebegia izateko asmoz jaio da. Iragana eta etorkizuna lotuko dituen zubia, alegia. Gure sukaldariek duela zenbait hamarkada beren ogibidea eraldatu zuten, euskal sukaldaritzaz berria sortuz. Hala, Suharrek gure arbasoen gizonen koruen kontzeptua eraldatu nahi du, erroei gogor eutsiz, baina proposamen berri eta kalitatezkoak eskainiz.

Lehendabiziko proiektu honetan, Suharrek alemaniar eta austriar musikagile erromantikoen musika dakarkigu, gizonen koruentzat obra kopuru amaigabea idatzi zen garaiko musika. "Soirée" izenburupean, Mendelssohn, Schubert eta Brucknerren musika-lanak aukeratu ditugu, maitasuna eta gaua hizpide dituzten lanak.

Suhar es un coro de voces graves que inicia su andadura en otoño de 2018, agrupando 26 voces experimentadas en el canto coral, con el objetivo de trabajar el repertorio para este tipo de formación al más alto nivel. Es un proyecto impulsado por el director Esteban Urzelai Eizagirre que, con su amplia experiencia en el mundo coral, quiere hacer de Suhar su proyecto personal. En este proyecto participa también la pianista Amaia Zipitria.

Las agrupaciones corales formadas por hombres han sido una de las formaciones más sólidas de nuestro legado coral. Los iniciales "orfeones", los coros parroquiales, los "ochotes", y otras agrupaciones de diversa índole han sido protagonistas de la tradición coral del País Vasco.

Suhar quiere ser ese eslabón que nos una con nuestro pasado coral y nos lleve a un futuro donde las voces masculinas tengan su espacio. Así como nuestros cocineros tuvieron que reinventarse hace algunas décadas para llegar a la nueva cocina vasca, Suhar pretende reinventar el concepto del coro de voces masculinas, manteniendo una sólida unión con nuestro pasado, pero ofreciendo un producto nuevo y de calidad.

Suhar se presenta con un primer programa de compositores del romanticismo alemán y austriaco, que tanta música escribieron para la formación de coro de hombres. Bajo el título de "soirée" se han seleccionado obras de Mendelssohn, Schubert y Bruckner, relacionadas con la noche y el amor.

## ESTEBAN URZELAI

Pianoko goi mailako titulua lortu zuen Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan, eta Koru Zuzendaritzakoak Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Musikenen, Gabriel Baltés maisuarekin. Musikenen bertan, Orkestra zuzendaritzako ikasketak ere egin zituen Enrique García Asensio, Manel Valdivieso eta Arturo Tamayo maisuen eskutik. Industri Antolakuntzako ingeniaria da.

Donostiako Orfeoiko zuzendariorde artistikoa da eta, era berean, bertako Orfeoi Txiki eta Orfeoi Gaztearen zuzendaria. Oñatiko Ganbara Abesbatzaren zuzendari aritu zen 1996 eta 2009 urteen artean, sari ezberdinak lortuz, aipagarriena 2004an lorturiko Kantu Koraleko Sari Nagusi Nazionala izan zelarik. 2016 urteaz geroztik, Euskal Herriko Gazte Abesbatza zuzentzen du.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearekin elkarlan estua du, azken honek antolatutako Zuzendaritza Akademiako irakasle taldeko partaide delarik 2012tik. Bestalde, zuzendaritza eta interpretazio mintegi ugari eskaini izan ditu Galizia, Badajoz, Kordoba, Malaga, Sevilla, Ciudad Real, Madril, Albacete edo Asturiasen.

Es titulado superior en Piano por el Conservatorio Superior de San Sebastián y titulado en Dirección Coral por el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, con el maestro Gabriel Baltés. Amplía su formación realizando en Musikene los estudios de Dirección de Orquesta con el maestro Arturo Tamayo, estudios que comenzó con los maestros Enrique García Asensio y Manel Valdivieso. Es Ingeniero en Organización Industrial.

Compagina el cargo de subdirector artístico del Orfeón Donostiarra con la dirección del coro infantil Orfeoi Txiki y del coro juvenil Orfeoi Gazte, de la misma entidad. Fue director de Oñatiko Ganbara Abesbatza entre 1996 y 2009, agrupación con la que obtuvo diversos premios, entre los que cabe destacar el Gran Premio Nacional de Canto Coral en 2004. Desde 2016 dirige el Coro de Jóvenes del País Vasco.

Colabora activamente con la Federación de Coros de Gipuzkoa y forma parte del equipo de profesores de la Academia de Dirección Coral organizada por la Confederación de coros del País Vasco desde 2012. Asimismo, ha impartido numerosos cursos de dirección e interpretación en Badajoz, Córdoba, Málaga, Sevilla, Ciudad Real, Madrid, Albacete y Asturias.

## Santa Kutz Komentuan

maiatzak 18 - 18:30ean

### EGITARAUA – PROGRAMA

#### I

C. Monteverdi ..... "Pur ti miro" (L'incoronazione di Poppea)  
(1563 – 1643)

G. F. Händel ..... "Troppo oltraggi" (Xerxe)  
(1685 – 1759)                    "Si, la voglio" (Xerxe)  
   "Io t'abbraccio" (Rodelinda, Regina de Longobardi)  
   "Laschia ch'io pianga" (Rinaldo)

C. W. Gluck                                    "Che fiero momento" (Orfeo ed Euridice)  
(1714 – 1787)                                "Vieni, appaga il tuo consorte" (Orfeo ed Euridice)  
   "Che faró senza Euridice" (Orfeo ed Euridice)

#### II

W. A. Mozart ..... "S'io non moro" (Idomeneo)  
(1756 – 1791)                                "S'altro che lacrime" (Clemenza di Tito)  
   "Ah, perdona" (Clemenza di Tito)  
   "Voi che sapete" (Le nozze di Figaro)

**Haizea Muñoz**, Sopranoa  
**Paula Iragorri**, Mezzosopranoa  
**Borja Rubiños**, Pianoa

## HAIZEA MUÑOZ

Donostian jaio zen, eta bertan hasi zen akordeoia ikasten. Zuzenbidean lizentziatu zen 2003an, Euskal Herriko Unibertsitatean. 2007an kantuko goi mailako ikasketak amaitu zituen, Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian. Perfekzionamendu ikastaroak egin zituen Ana Luisa Chova, Raquel Andueza, Bonaldo Giagiotti eta Montserrat Caballérekin, besteak beste.

Ziklo eta jaialdi askotan parte hartu du, eta antzoki ugarian abestu du, hala nola Auditorio Nazionalan, Bilboko Euskalduna Jauregian, Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, Vitoria-Gasteizko Principal Antzokian, Iruñeako Baluartan eta A Coruñan, hainbat orkestrek lagunduta: Galiziako Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Opus Lirica Orkestra, besteak beste.

Operari dagokionez, «El Barbero de Sevilla» eta «La Cenerentola», «Rigoletto», «La Traviata» eta «La Flauta Mágica» interpretatu ditu, eta zarzuelan, berriz, «Tabernera del puerto» eta «Katuska», P. Sorozabalena, «Los Gavilanes», «El Huesped del Sevillano», «La Tempranica» eta «El Caserio». Azkenik, oratorion: «Visperas de la Beata Virgen» (C. Monteverdi), «Pasión según San Juan», «Misa en si m» eta «Integral de motetes» edo «Pasión según San Mateo», «Réquiem» (W. A. Mozart), «Réquiem Alemán» (J. Brahms) edo «Réquiem de Duruflé», «La Creación» (J. Haydn) eta «Misa en do menor» (W. A. Mozart), besteak beste.

Gaur egun, karrera artistikoa garatzeaz gain, irakaskuntzan ere jarduten da.

Nace en San Sebastián donde comienza sus estudios de acordeón. Es licenciada en Derecho en 2003 por la Universidad del País Vasco (UPV). En 2007 finaliza sus estudios superiores de canto en el Centro Superior de Música del País Vasco. Realiza cursos de perfeccionamiento con Ana Luisa Chova, Raquel Andueza, Bonaldo Giagiotti, Montserrat Caballé entre otros.

Ha participado en numerosos ciclos y festivales y actuado en teatros como, el Auditorio Nacional, Palacio Euskalduna de Bilbao, Palacio de congresos Kursaal de San Sebastián, Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián, Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz, Baluarte de Pamplona, La Coruña, acompañada por orquestas como, Orquesta Sinfónica de Galicia, Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta sinfónica de Bilbao, Orquesta Opus Lirica.

En cuanto a ópera ha interpretado , «El Barbero de Sevilla» y «La Cenerentola», «Rigoletto» «La Traviata» y «La Flauta Mágica» y en zarzuela, en la «Tabernera del puerto» y «Katuska» de P. Sorozabal, «Los Gavilanes», «El Huesped del Sevillano», «La Tempranica» y «El Caserio». Finalmente en oratorio, «Visperas de la Beata Virgen» de C. Monteverdi, la «Pasión según San Juan», la «Misa en si m» y la «Integral de motetes» o la «Pasión según San Mateo», el «Réquiem» de W. A. Mozart, el «Réquiem Alemán» de J. Brahms o el «Réquiem de Duruflé». «La Creación» de J. Haydn o la «Misa en do menor» de W. A. Mozart.

Actualmente, compagina su carrera artística con la docencia.

## PAULA IRAGORRI

Donostian jaioa, San Inazio Eskolania eta Abesbatzan eman zituen lehenengo urratsak. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu zen, Deustuko Unibertsitatean, eta Kanpo Merkataritzako masterra egin zuen Madrilgo Autonomia Unibertsitatean.

Javier Santacanaarekin hasi zituen kantu ikasketak, eta ondoren Madrilera joan zen; goi mailako ikasketak egin zituen bertan, Lied eta Oratorio espezialitatean, Kantuko Goi Mailako Eskolan. Ikasketa horiek egiten zituen bitartean, Errege Antzokiko abesbatza titularrean abestu zuen. Ondoren, Berlinera joan zen; bertan, Deborah Polaski soprano eta Kammer­sängerin-arekin eta Till Hass maisuarekin ikasi zuen.

Birak egin ditu Japonian eta Alemanian, "Vesperae solennes" (Haydn), "Stabat Mater" (Pergolesi) eta "Letaniae de venerabili altaris sacramento" (Mozart) bezalako piezak interpretatuz, eta musika espainiarreko nahiz euskal musikako errezitaldiak ere eman ditu. Potsdameko jaialdian parte hartu du, «La purpura de la rosa» opera barrokoko antzezle-zerrenda espainiarraren barruan, «La Chimere» taldearekin batera.

Espanian ere eman ditu kontzertuak, askotariko jaialdi eta antzokietan. Lan berrienen artean, azpimarratzekoa da «La Flauta Magica» obran 3. dama gisa parte hartu izana, Mahlerren Kindertotenlieder-ak interpretatu izana, «Rigoletto» obran parte hartu izana eta Fallaren «El Amor Brujo» obraren interpretazioa Berlingo Philharmonie-ren Kammermusiksaal-en. Gainera, Arantzazuko santutegiko artxiboko musikari buruzko grabazio bat egin du.

Nacida en San Sebastián, da sus primeros pasos en la Escolanía y Coral San Ignacio. Es Licenciada en Administración y Dirección de Empresas por la Universidad de Deusto y Master en Comercio Exterior por la Universidad Autónoma de Madrid.

Comienza sus estudios de canto con Javier Santacana, posteriormente se traslada a Madrid donde realiza estudios de Grado Superior en la especialidad de Lied y Oratorio con en la Escuela Superior de Canto, estudios que compagina con un puesto en el Coro Titular del Teatro Real. Posteriormente se traslada a Berlín donde estudia con la soprano y Kammer­sängerin Deborah Polaski y el Mtro. Till Hass.

Ha realizado giras por Japón y Alemania interpretando "Vesperae solennes" de Haydn, "Stabat Mater" de Pergolesi y "Letaniae de venerabili altaris sacramento" de Mozart además de recitales de música española y vasca. Ha participado en el festival de Potsdam, dentro del elenco español de la ópera barroca "La Purpura de la Rosa" junto con el ensemble "La Chimera".

En España ha actuado en diversos festivales y teatros. Entre sus últimos trabajos destaca su participación en "la Flauta Magica" como 3ª dama, la interpretación de los Kindertotenlieder de Mahler, su participación en "Rigoletto" y su interpretación de "El Amor Brujo" de Falla en la Kammermusiksaal de la Philharmonie de Berlín. Ha realizado así mismo una grabación sobre música del archivo del monasterio de Aranzazu.

## BORJA RUBIÑOS

Donostian jaioa, bertako kontserbatorioan egin zituen ikasketak, eta bertan amaitu zituen piano karrera, M. Llorentekin, eta kontposiziokoa, G. Aulestiarekin.

Akonpainamenduko irakaslea da Irungo kontserbatorioan. Hainbat talderekin jardun ohi da, hala nola Donostiako Orfeoiarekin -2003an Mexikoko biran parte hartu zuen, eta baita Madrilgo Auditorio Nazionalean ere-, Tolosako Orfeoiarekin eta KUP taldea eta Muskilais abesbatzekin. Salamancako Unibertsitateko Antzinako Musikaren Akademiarekin ere jardun ohi da, klabezinista laguntzaile gisa, eta baita European Chamber Operarekin ere. Donostiako Talde Barrokoa eta Conductus Ensemble talde barroketako kide ere izan da.

Ohiko pianista da Opus III Ensemble perkusio taldean, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin ere jarduten da.

Akonpainamenduaren eta ganbera musikaren arloan aritzen da, eta askotariko solista bokal edo instrumentalekin jo izan du, musika jaialdi ugarietan. Donostiako Zinemaldiko zine mutuko zikloetan ere parte hartu zuen.

Nacido en Donostia, cursa estudios en el conservatorio de dicha ciudad donde finaliza la carrera de piano con M. Llorente y la de composición con G. Aulestia.

Es profesor de acompañamiento en el Conservatorio de Irun. Colabora habitualmente con agrupaciones como el Orfeón Donostiarra, actuando en 2003 en una gira por México y en el Auditorio Nacional de Madrid, el Orfeón Tolosano, y los grupos corales KUP Taldea y Musikalis. Colabora asiduamente con la Academia de Música Antigua de la Universidad de Salamanca como clavecinista acompañante, así como con la European Chamber Opera. También ha formado parte de los grupos barrocos Conductus Ensemble y Conjunto Barroco de San Sebastián.

Es así mismo pianista habitual del grupo de percusión Opus III Ensemble, así como colaborador de la Orquesta Sinfónica de Euskadi y la Orquesta Sinfónica de Navarra.

Su actividad se centra en el mundo del acompañamiento y la música de cámara, actuando con diversos solistas vocales o instrumentales en numerosos festivales de música. Formó parte también de los ciclos de cine mudo en el Festival de Cine de San Sebastián.

## Santa Kutz Komentuan

maiatzak 25 - 18:30ean

### EGITARAUA – PROGRAMA

H. Purcell ..... Theatre Music Selection  
(1659-1695)

Abdelazer  
Rondeau  
The Virtuous Wife  
Overture  
Quick Air  
Hornpipe  
29Two Minuets I-II  
March

W. Walton ..... Sonata for String Orchestra  
(1902-1983)

Allegro  
Presto  
Lento  
Allegro Molto



E. Elgar ..... Serenade in E for Strings Op. 20  
(1857-1934) Allegro piacevole  
Larghetto  
Allegretto

G. Holst ..... St. Paul's Suite Op. 29  
(1874-1934) Jig  
Ostinato  
Intermezzo  
Finale (The Dargason)

### KAMERATA OIASSO

I. Biolinak : Tomás Ruti, Leire Hipólito, Mónica Redondo, Mikel Urdangarin

II. Biolinak : Mainer Aizpurua, Ainhoa Galvany, June Bergés, Pablo Gutiérrez

Biolak: Imanol Martínez, Ane Aguirre, Bittor Alkain

Biolontxeloak: Amaia García, Irati Ortubia, Iratxe Paredes

Kontrabaxua: José Antonio Gómez

## KAMERATA OIASSO

Kamerata Oiasso duela gutxi sortu den hari-orkestra da. Kide gehienak irundarrak dira eta lotura estua dute hiriarekin eta bertako jarduera musikalarekin. Taldeak hiriaren antzinako adieratik hartzen du izena: Oiasso.

Kameratako kide gehienak musikari profesionalak dira eta askotan Euskadiko Sinfonikoarekin, Bilboko Sinfonikoarekin, Musikeneko Sinfonikoarekin, Frantziako Euskal Kostaldeko Orkestrarekin, Nafarroako Sinfonikoarekin eta herrialdeko zein atzerriko beste ganbara taldeekin jotzen aritu dira.

Programazio anitza eta eklektikoaren bidez, Kamerata Oiassoren proposamen artistikoa kalitatezko musikaren hedapena bermatzea da, bere esanahi zabalenean. Taldearen xedea kontzertuak eszenatoki tradizionalenetan eskaintzeaz gain, aretoetan ohiko ez diren entzuleengana hurbiltzea da.

La Kamerata Oiasso es una orquesta de cuerda de reciente creación en la que prácticamente la totalidad de sus miembros son de Irun o están estrechamente vinculados a la ciudad y a su vida musical.

La agrupación toma su nombre de la antigua denominación de la ciudad: Oiasso. La mayoría de los componentes de la Kamerata son músicos profesionales que han colaborado asiduamente con orquestas como la Sinfónica de Euskadi, Sinfónica de Bilbao, Sinfónica de Musikene, Orchestre de la Côte-Basque (Francia), Sinfónica de Navarra, y también en formaciones camerísticas del país y del extranjero.

A través de una programación variada y ecléctica, la Kamerata tiene como propósito garantizar la difusión de la música a un alto nivel y en su más amplio significado. La agrupación apuesta por ofrecer conciertos no sólo en los escenarios tradicionales, sino que pretende acercarse a un público no tan asiduo a las salas de conciertos.









28. <

UDABERRIKO  
MUSIKALDIA

Azkoitia - 2019

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**